



Lurraren collagea

FITXA

2

Helburuak

- FRUTA-AHORAKINA HANDITZEA.
- FRUTAK EZAGUTZEA.

Ikastaroak eta arloak/Eremuak/Materiak _____

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1go maila.
Natura-zientziak, Hezkuntza artistikoa.
• Jokabide osasungarriak. Elikadura osasungarri eta orekatua.

Gomendatutako adina _____

3-7 urteko ikasleak.



Jardueraren deskribapena/Metodologia _____

Jarduera hau egiteko, ikasleei lehenago ohartaraziko diegu fruta-irudiak dituzten egunkariak, aldizkariak, publizitatea eta abar ekarri behar dituztela etxetik. Koloretako kartulinak ere erabil daitezke, eta fruten formak moztu.

Beharrezko materiala eraman ondoren, ikasgelan, oinarrizko taldetan multzokatuko dira, eta talde bakoitzak bere kideen objektuak eta aldizkariak partekatuko ditu. Kartulina bana banatuko zaio oinarrizko talde bakoitzari, eta collage bat osatzeko bertan itsatsiko dituzten frutak aukeratu beharko dituzte.

Mailen araberrako egokitzea: 4 urteko ikasleek ebaki gabe eramango dituzte fruten irudiak, aldizkarietan; 3 urtekoek, berriz, motrizitate finaren garapen eskasagatik mozteko duten mugaren ondorioz, etxetik moztuta eramango dituzte. Adin handiagoetan, irakasle-taldearen iritziz egokiak diren material eta teknikekin egin beharreko beste diseinu batzuk erabil daitezke.

Talde bakoitzak bere collagea zein frutaz osatuta dagoen azaldu/adierazi beharko du. Talde originalena izango da irabazlea, fruta tipikoak bakarrik dituzten muralak izan ez daitezten.

Bukatutakoan, ikasgelako horman zintzilikatuko dira, eta aurrerago erabiliko dituzte, frutaren festan.

Hurrengo egunean, fruta zatituta ekarriko dute ikasleek etxetik; talde guztiek elkarrekin "frutaren festa" egingo dute, eta ekarri dituzten frutak trukatu dituzte.

Aniztasunari erantzuteko, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleentzat beharrezko giza baliabideak edukiko dira (PT, hezitzailea, logopeda), eta irakasleek, tutoreek edo ikasle laguntzaileek aktiboki lagunduko diete, premia zehatzen arabera.

Jarduera egin aurretik, ikasleen elikadura-alergiak kontsultatuko dira.



Aukeratu
osasuntsu jatea
Zu irabazle!



Elige
comer sano
¡Tú ganas!

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA



DEPARTAMENTO DE SALUD

Egutegi eredu/Iraupena_____

Jarduera 2 saiotan egingo da:

1go saioa (45 minutu): collageak egingo dira.

2. saioa (45 minutu): Frutaren festa.

Jarduera-eremua_____

Eskolako jangela Ikasgela Etxea Beste bat

Beharrezko baliabideak_____

Giza baliabideak:

Familia.
Irakaslea.

Materialak:

Kartulinak, guraizeak, kola, zinta itsaskorra.
Aldizkari eta egunkari zatiak.
Fruten forma duten gauzak.

Ebaluazio-metodoa/Adierazleak_____

Ebaluazio jarraieren bidez, ondorengo hau baloratuko da:

- Ikasleek collagea egiteko materiala eraman duten.
- Ikasleek collageko frutak ezagutzeko gai diren.
- Ikasleek fruta jan duten, frutaren festan.

Informazio gehiagorako (aurretiazko esperientziak, material lagungarria, bibliografia...)_____

Aurretiazko esperientziak:

- http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/79586/forum_2003_28.pdf?sequence=1
- <https://conociendofrutasjb2018.blogspot.com/?m=0>
- <http://www.supercoloring.com/es/dibujos-para-colorear/frutas>
- <https://www.pinterest.es/pin/331436853809470617/>

Bibliografia:

- Folkvord F, Anschütz DJ, Buijzen M, Valkenburg PM. The effect of playing advergames that promote energy-dense snacks or fruit on actual food intake among children. *Am J Clin Nutr.* 2013;97(2):239-45.
- Paras B. Game, Motivation, and Effective Learning: An integrated Model for Education Game Design. DiGRA. 2005.
- Mustonen S, Tuorila H. Sensory education decreases food neophobia score and encourages trying unfamiliar foods in 8–12-year-old children. *Food Qual Prefer.* 2010; 4): 353-360.

